



## HHko GOI TEKNIKARIA, HEZKUNTZA LAGUNTZAKO ESPEZIALISTA, HHko IRAKASLEA, LHko IRAKASLEA, HEZIKETA BEREZIKO IRAKASLEA ETA DBHko IRAKASLEA LAN-POLTSA OSATZEA

Eleizalde tar Luis Ikastolak 2017-2020rako lan-poltsa osatu nahi du, ondoko postuetarako: HHko Goi Teknikaria, hezkuntza-laguntzako espezialista, HHko irakaslea, LHko irakaslea, Heziketa Bereziko irakaslea eta DBHko irakaslea.

### 1. Derrigorrezko titulazioa:

- Bakoitzari dagokion titulazioa:
  - HHko Goi Teknikaria.
  - Hezkuntza laguntzako espezialista: Gizarte Integrazioko Goi Teknikaria edo Haur Hezkuntzako Goi Teknikaria.
  - HHko irakaslea, LHko irakaslea, DBHko irakaslea.
  - Heziketa bereziko irakaslea: Lehen Hezkuntzako Gradua, Heziketa Berezia aipamenarekin.
- Euskara: C1 titulua edo baliokidea.
- Ingelesa: B2 titulua edo baliokidea. (HHko Goi Teknikariak eta Hezkuntza laguntzako teknikariak izan ezik)

### BALDINTZA HORIEK BETETZEN EZ DITUZTEN CURRICULUMAK EZ DIRA KONTUAN HARTUKO.

Titulazioak lortuta izan behar dira izena ematen den momentuan.

### 2. Baremazioa:

<b>PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA</b> (Gehienez 5 puntu)		
Titulazioan lortutako batez besteko nota	5-6	1
	6,01/7,5	1,25
	7,51/10	1,5
<b>Prestakuntza:</b> • Ikasketa osagarrietan kontuan hartuko dira lanposturako prestakuntza gehigarria direnak. • 10 ordutik gorako ikastaroak baino ez dira puntuatuko.	Psikologia/Pedagogia/Psikopedagogia	0,5
	Beste lizentziatura edo graduren bat	0,25
	Euskarako C2 titulua	1,5
	Ingeleseko C1 titulua	1
	Aisialdi begiralea	0,5

<b>BESTE PRESTAKUNTZA AKADEMIKO BATZUK</b> (Gehienez 5 puntu)	
Ikastolako HH proiektua	0,5 puntu
HH didaktika	0,5 puntu
Eleanitz	0,5 puntu
EKI	1 puntu
Gela barneko dinamikak	0,5 puntu
HIZPRO	0,5 puntu
C2 prestakuntza/hizkuntzaren zuzentasuna	1 puntu
Hezkidetza	0,5 puntu
IKT	1 puntu
Lan kooperatiboa	1 puntu



<b>IRAKASLE LANEAN ESPERIENTZIA (Gehienez 5 urte, gehienez 5 puntu)</b>	
Eleizalde Ikastolan, behar den postuan .	Urteko 1 Hileko 0.0833
Eleizalde Ikastolan, hezkuntzako beste posturen baten.	Urteko 0.5 Hileko 0.0416
Beste Ikastola baten, behar den postuan.	Urteko 0.75 Hileko 0.0625
Beste ikastola baten, hezkuntzako beste posturen baten.	Urteko 0.375 Hileko 0.0313
Beste ikastetxe baten, behar den postuan.	Urteko 0.5 Hileko 0.0416
Beste ikastetxe baten, hezkuntzako posturen baten.	Urteko 0.25 Hileko 0.021

### Baremaziorako beste puntu batzuk

<b>Ikastolarekin lotura (ez metagarriak)</b>	
Eleizaldeko ikasle ohia	2
Bazkide erabiltzailea	1,5
Bazkide ez erabiltzailea	1
Beste ikastola bateko ikasle ohia	0,5
Bermeon erroldatuta	0.25

<b>Elkarrizketa</b>
Gehienez 5 puntu

### 3. Prozedura eta epeak:

- Eskaria DERRIGORREZ Eleizalde tar Luis ikastolako idazkaritzan bete behar da eta agiriak bertan aurkeztu beharko dira maiatzaren 17tik 31ra, biak barne.
- Eskarian adierazitakoaren arabera, izena eman duen bakoitzari dagokion puntuazioa esleituko zaio.

Ekarri beharreko dokumentazioa:

- Oinarrizko titulazioen kopia konpultsatua.
  - Gainontzeko prestakuntza akademikoa egiaztatzeko titulu konpultsatuak (gogoratu homologatuak izan behar direla).
  - Gizarte Segurantzak emandako orriaren kopia, lan-esperientzia egiaztatzeko.
  - Errolda agiria.
- Beharrezkotzat jotzen badugu elkarrizketak eta pertsonalitate-proba ere pasatuko dira.
  - Epea amaitu eta gero ez da izen-emate berririk onartuko.

**ARTEZKARITZA BATZORDEA**  
Bermeon, 2017ko maiatzaren 16ean